

Pseudobirusak sendatzeko

Alaziako Illkirch-ko Kimika Genetikorako Laborategietan pseudobirus batzuk sortu dituzte eta laster Strasburgeko ospitalean onkohematologi zerbitzuan erabiliko dituzte. Berez helburu teoriko hutsez sortu baziren ere, gene batzuen bektore izan daitezkeela ikusi da eta generetapia berri batean *in vitro* erabil daitezkeela ere bai.

Anomalia genetikoa konpondu nahi denean, ohizko teknika klasikoan kaltegarria ez den birusean gene normala ezartzen da eta birusak sartzen du gene normal hori zelula gaixoetan. Zoritxarrez bektore diren birusek gene laburrak baino ezin dituzte garraia eta zeluletan ezarri ondoren eraginik gabe ere gera daitezke. Pseudobirusek ez dute horrelako arazorik. Espermina izeneko proteina bati esker, trans-

Pseudobirusak generetapiari erabil daitezke, gene luzeak ere garraia ditzaketelako.



feritu behar den genearen bolumena murriztu eta guztia lipido-mintz artifizial batez inguratzen da. Multzoak 0,1 mikra neurtzen du, hau da, gutxi gora-behera "egiazko" birusak neurtzen duena.

Pseudobirusak ez dira toxikoak eta gene luzeak garraia ditzakete, baina desabantaila bat ere badute: birus biologikoen zelula-espezifikotasunik ez dute eta ez dira biologikoak bezain eraginkorrak. Horregatik, Strasburgeko ikerle-taldearen hurrengo urratsa pseudobirusetan helburu diren zelulenganaiko afinitatea hobetuko dieten elementuak ezartzea izango da.

Bertigoak medikuntzan

Posizio-bertigo paroxistikoak dituen pertsonari, bera ala inguruko objektuak biraka edo oszilatu ari direla iruditzen zaio. Gaitz vestibular hau normalean ez da gaixotasun larria izaten, baina batzuetan pertsona lanerako gai ez dela uzten du. Azkenaldian egin diren ikerketa batzuen arabera, gaixotasuna % 90etan sendatu egin daiteke. Horretarako, nahita, bertigo-krisia eragiten duten posturak hartzen dira. Hasieran krisiak maiz izaten dituen gaixoak, baina gero atakeak poliki-poliki baretu eta azkenean desagertu egiten dira.

Tentsioa eta hipertentsioa

Nerbioak azalean edukitzeak eta haserretzeak arterietako tentsioa goarazi egiten dute. Hori da Estatu Batuetako Framingham herrian 20 urtez 1.100 pertsonarekin egindako ikerketa batek adierazten duena. Gizon helduarengan hipertentsio-arriskua handiagoa da nerbioak asaldatuta eta antsietatea edukiz gero. Emakumeengan ordea, badirudi haserre egoteak arterietako tentsioan inolako eraginik ez duela.

Golkoko gerrako misterioak

Iraken kontra Pertsiar Golkoko gerran ibilitako 8.000 soldadu estatubatuar gaixo daude. Oroimen-galera, erupzioak eta bihotzeko arazoak izaten dituzte.

Txekiarrek egindako ikerketetan esaten denez, helburu militarrek zeuden lekuetan ziapegasa eta sarin izeneko toxikoa zeuden. Pentagonoak onartu egin ditu datu horiek, baina ezin dute ulertu Estatu Batuetako soldaduegan eragina zergatik izan duten. Izan ere, batetik txekiarrengandik urruti ibili ziren eta bestetik haizeak beste aldera jotzen zuen (hau da, hegoaldeetik Irak aldera).



Pertsiar golkoko gerran ibilitako 8.000 soldadu estatubatuarrek, oroimen-galera, erupzioak eta bihotzeko arazoak dituzte.

Irakeko pertsona zibilek eta soldaduek horrelako edo antzeko gaitzik duten ez dute aditzera eman.

Hegazkin-azafatak eta antzutasuna

Estatu Batuetako hegazkin-lineetako 2.000 azafatarekin azterketa sakona egiten ari dira. Izan ere, atmosferako altitude handietan (izpi kosmikoak behean baino ugariago diren zonetan) ibiltzen dira batetik, eta ordu-aldaketak noiznahi izaten dituzte bestetik. Horrek guztiak beren ernalkortasunari edo antzutasunari eragiten ote dion jakin nahi dute. Lehen ere honen antzeko ikerketa bat eginak dira.

